

Sasieta Mankomunitateko Batzar Errektoreak, 2010eko abenduaren 1ean egindako bilkuran, ondorengo AKORDIO hau hartu du:

1. Sasieta mankomunitateak hiri hondakinen **gaikako bilketa egiteko beste modalitate batzuk aztertzeari** ekingo dio, gaur egun edukiontzi ezberdinak biltzen dituzten borondatezko aportazio gunetan oinarritutako sistemaz aparte, **"atez ate"** bezala ezagutzen den sistema eta **sistema mistoa** (mankomunitate beraren barnean bi sistema hauek uztartuko dituen). Azterketa etorkizunean Sasieta mankomunitateko eremuan ezartzeko bideragarritasuna zehazteko erabiliko da.
2. Aipatutako azterketa egungo hiri hondakinen bilketa zerbitzuko **kontzesioaren epemuga baino urte bete lehenago** amaituta egongo da ondoren, mankomunitateak hala erabakiko balu, lehiaketa berriaren baldintza pleguak zehazteko oinarri bezala erabili ahal izateko. Dena den, hori baino lehen, azterketaren **emaitzak aztertu eta eztabaidatzeko behar adina denbora** izango da.
3. Azterketa hau behar bezala gauzatzeko, mankomunitateak erakundeen arteko **lankidetzaz hitzarmenak edo akordioak bultzatuko** ditu "atez ate"ko sistema eta sistema "mistoa" garatuta dagoen lurraldetako **datuak trukatu** eta **aholkularitza teknikoa** jaso ahal izateko. Horretaz aparte, "atez ate"ko bilketa arloan eta sistema "mistoa" ospea duten **erakunde independienterengatik edo adituen kanpoko asistentzia teknikoa** kontratatuko du.
4. Azterketa egin bitartean, **etxetako hondakinen zati organiko konpostagarriaren gaikako bilketa marroi koloreko edukiontzi bidez Sasieta mankomunitate osoan zabalduko da** eta honekin batera, **autokonpostaia ere ahalik eta gehien zabalduko da** (autokonpostaia bultzatzeko lanketa berezia eginez) Sasieta mankomunitateak 2009/12/21ean eta 2010/04/14an egindako bilkuran hartutako erabakiak betez.
5. Edukiontzi bidez egindako gaikako bilketa sistemarekin edo agian, sistema honen bilakaera eta optimizazio modura txartel adimendunen teknologia erabiliz sistema *"personalizatu"* arekin lortutako emaitzak batetik, eta "atez ate"ko edo sistema "mistoko" bilketa ezartzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren inguruko azterketaren ondorioak bestetik, bilduko dira. **Mankomunitateak etorkizuneko bilketa zerbitzuaren baldintza pleguen zehaztapen eta edukiaren** inguruan dagokion **erabakia hartzeko** oinarri bezala erabiliko ditu azterketa hauek.
6. Mankomunitateko Batzar Errektoreak **Jarraipen Batzorde** bat izendatuko du, berak erabakitzen duen maiztasunarekin aldizka bildu eta aipatutako **azterketaren garapenaren jarraipena** egiteko.
7. Bilketa sistema edozein izanik ere, mankomunitatea etorkizunean udalen ekarpenetan aldagai berri bat sartzeko aukerak aztertzen hasiko da, herri mailan hondakinen gutxitze, birziklatze eta konpostatze maila eta deusestatzera (zabortegira edo errauskailura) bidalitako hondakin kantitatea kontutan hartuko dituen.